

## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Txano Gorritxo: ipuinaren lanketa



### - Piktograma

#### Helburuak

- Ulermena lantzea.
- Egiturak lantzea.
- Hiztegia lantzea.

#### Prozedura

*Aldez aurretik entzun eta ikusi dugun ipuinaren testua eta irudiak agertzen dira piktograman. Ikasleek irudiaren izena jarri behar dute, kontuan hartuta irudiaren izena testuan ondo txertatu behar dela; hau da, izena dagokion deklinabide atzizkiarekin osatu behar da.*

- Ume bakoitzari fitxa bat eman.
- Irudiak dauden lekuan, irudi horri dagokion hitza idatzi beharko dutela azaldu.
- Deklinabide markak jarri beharko dituztela argitu.
- Ume bakoitzak bere lana egin dezala.
- Denen artean zuzendu eta zalantzak argitu.

#### - Hau zer da? Etxea.

Irakurri esaldi osoa: "*Amonaren etxera noa*"; *Nora?* "*Amonaren etxera*".

#### Oharra

- Hezitzaileak ipuinaren paperezko euskarria erabil dezake zuzenketak egiteko.